

**Jurdana Uriarte Lejarraga Bermeoko Udaleko IDAZKARI NAGUSIAREN
56/2019 TXOSTENA**

Gaia: Bermeoko portuko ontziolaren emakidaren iraungitzearen ondorioa

Txostenaren oinarria: Toki Erakundeen Izaera Nazionaleko Gaikuntzadun Funtzionarioen Araubide Juridikoa onartzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3.3.a artikulua

1. Aurrekariak

Lehena: 2017ko apirilaren 12an Tokiko Gobernu Batzarrak Astilleros de Bermeo S.L.ri ontziola jarduera handitzeko lizentzia eman zion. Lizentzia horretan ez da lizentziaren iraunaldirik finkatzen.

Bigarrena: 2019ko urriaren 17ko sarrera erregistroan (S.E. 12678) Eusko Jaurlaritzaren 2019ko urriaren 1eko Portu eta Itsas Gaietako zuzendariaren ebazpena erregistratu zen. Ebazpenean¹ Bermeoko portuan dagoen ontziolaren jardueraren ondare publikoaren **emakidaren iraungitzea** adierazten da.

Hirugarrena: Data bereko sarrera erregistroarekin Portu eta Itsas Gaietako zuzendariaren 2019ko urriaren 3ko ebazpena jasota dago. Ebazpenean² Astilleros de Bermeo S.A.ri ondare publikoaren gaineko **emakida eman ahal izateko baldintzak** ezartzen dira.

Laugarrena: Portu eta Itsas Gaietako zuzendaritzara 2019ko urriaren 3ko ebazpena oinarri duen espedientearen kopia eskatu da 2019ko urriaren 23an (Erregistro elektronikoa 2019RTE00414662) Momentu honetan ez daukagu espedienterik.

Bosgarrena: Alkatetzak idazkariren txostena eskatu du hurrengoaren inguruan informatzeko: Bermeoko portuko ontziolak zeukan portuko jabaria okupatzeko edo erabiltzeko emakidaren iraungitzeak suposatzen badu edo ez Udalak emandako jarduera lizentziaren iraungitzea.

¹ Gaztelaniaz: "Resolución por la que **se declara la extinción** de la concesión de dominio público en el puerto de Bermeo para la actividad de Astillero".

² Gaztelaniaz: "Resolución por la que se establecen las condiciones en que **podría otorgarse** a Astilleros de Bermeo, S.A: concesión de ocupación de dominio público en el puerto de Bermeo"



2. Oinarri juridikoak

2.1. Aplikagarria den araudia

- Otsailaren 27ko 3/1998 Euskal Herriko ingurugiroa babesteko lege orokorra
- Ekainaren 30eko 2/2006 Euskal Lurzoru eta Hirigintzako Legea
- Ekainaren 28ko 2/2018 Euskal Autonomia Erkidegoko Portuen eta Itsas Garraioaren Legea

2.2. Azterketa juridikoa

- **Portuko jabaria okupatzeko edo erabiltzeko emakidaren iraungitzeak udalak emandako jarduera lizentziaren iraungitzea suposatzen badu edo ez**

2018.urtean Euskal Lurzoru eta Hirigintzako Legearen 210. artikulua eraldatu zen, eraldaketa horren ondorioz hurrengo puntua gehitu zen: “8. Hirigintza-lizentzia bidez baimendutako egintzaren ondorioz portuko jabari publikoa okupatzen edo erabiltzen denean, **emakidaren iraungitzeak jabari publikoko tituluak eusten dion hirigintza-lizentzia iraungitzea** ekarriko du.”³

Kode Zibilaren⁴ 3. artikuluekin bat, Euskal Lurzoru eta Hirigintzako legearen 210.8 artikulua hitzez hitzeko irakurketa eginda portuko ondare publikoaren emakida iraungitzeak, hirigintzako lizentziak iraungitzea ekarriko du.

³ “Gaztelaniaz: 8.- Cuando el acto autorizado por la licencia urbanística suponga la ocupación o utilización de dominio público portuario, **la extinción de la concesión llevará consigo la extinción de la licencia urbanística** a la que da soporte el título demanial.”

⁴ 1889ko uztailaren 24ko Kode Zibilaren 3. Artikulua: Arauak euren hitzez-hitzeko esanguraren arabera interpretatuko dira, betiere, testuinguruari, aurrekari historikoei eta legegintzazko aurrekariari, eta arau horiek aplikatu behar diren garaiko gizarte-errealitateari lotuta, eta, batik bat, arauen espiritua eta xedea kontuan hartuta.




Horrekin lotuta, otsailaren 27ko 3/1998 Euskal Herriko ingurugiroa babesteko lege orokorraren 59 Bis 2. atalean⁵ jasotzen da jarduera lizentzia eragin barik gelditzen dela **ez badira betetzen menpe dituen baldintzak**. Eta baldintza bat da, legez ezarrita dagoena, portuen jabaria okupatzeko edo erabiltzeko emakida izatea.

Kasu zehatz honetan zalantza suertatu litzateke 2019ko urriaren 3ko Portu eta Itsas gaietako Zuzendariaren ebazpenaren arabera, **emakida berria eman ahal izateko espedientea hasita** dagoelako. Baina, hasita egoteak ez du suposatzen momentu honetan emakida dagoenik. Izan ere, Udalean dagoen informazioaren arabera, momentu honetan Bermeoko portuan dagoen ontziolak **ez dauka emakidarik**, soilik emakida emateko espediente berri bat hasita dago eta eman ahal izateko baldintzak ezarri dira. Izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Portuen eta Itsas Garraioaren 28ko 2/2018 Legearen 41. artikuluko 6. eta 7. paragrafoen arabera, Portu eta Itsas Gaietako zuzendariaren 2019ko urriaren 3ko ebazpenarekin ematen du emakida eman ahal izateko baldintzak finkatzeko fasea burutu dela eta hori eskatzaileari jakinaraziko zaiola, zeinak baldintzak espresuki onartu beharko dituen. Eskatzaileak ez balu ezer adieraziko emandako epearen barruan, artxibatu egingo liriteke jarduketak. Ostera, baldintzak ezarritako epean onartuz gero, eskatu ahala ebatziko litzateke baimena emateaz, eskabidearen egokitasunaren arabera. Hortaz, aipatutako prozedurarekin bat, etorkizunean **espedientea artxibatu liteke edo eskabidearen egokitasunaren arabera ebazpena eman**.

Oro har, portuetako jabaria okupatu edo erabiltzeko emakida emateko prozedura Euskal Autonomia Erkidegoko Portuen eta Itsas Garraioaren ekainaren 28ko 2/2018 Legearen 35. artikuluan eta hurrengoetan araututa

⁵ Otsailaren 27ko 3/1998 Euskal Herriko ingurugiroa babesteko lege orokorraren 59 Bis 2. Atala: *Las licencias quedarán sin efecto si se incumplieran las condiciones a que estuvieran subordinadas.*



dago. Hain justu ere, 41. artikulua instrukzioa zehazten du.⁶ Eta aipagarria da

⁶ Euskal Autonomia Erkidegoko Portuen eta Itsas Garraioaren ekainaren 28ko 2/2018 Legearen 41. artikulua:

1. Aurkeztutako eskabidea aurkezturik, Portuko Administrazioak proiektua eta dagokion lurzorua eta ur-eremuak alderatuko ditu haren bideragarritasuna eta egokitzapen teknikoa ikusteko.

2. Era berean, jendaurreko informaziorako aldi bat zabalduko da, gutxienez hilabetekoa, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkari Ofizialean dagokion iragarkia argitaratuko delarik, eta, aldi berean, txostena eskatuko zaie legez eta erregelamenduz erabakitzen den administrazio eta organismoari, hilabeteko epean egin beharko dena, eta epe hori pasata txostenik ez badago aldekotzat joko da.

3. Jendaurreko informaziorako izapidea ez da nahitaezkoa izango emakida dauden eraikinak osorik edo zati baten erabilerarako, kanpoko arkitektura aldatu gabe, eta portuko plangintzan baimendutako erabileretarako.

4. Jendaurreko informazioaren ondorioz lehiarik ez dagoela ikusten bada, aurrera egingo da eskabidearen izapidearekin.

5. Eskatzaile bat baino gehiago badago, esleipena lehia publikoaren prozeduraren bitartez egingo da hurrengo artikuluan zehaztutako izapideei jarraituz, eta Portuko Administrazioak dagokion baldintzen agiria onartu beharko du alde aurretik, eta bertan azaldu beharko dira esleipena gidatuko duten irizpideak.

6. Behin aurreko izapideak eginik, emakida eman ahal izateko baldintzak finkatuko dira eta eskatzaileari jakinaraziko zaizkio, zeinak espresuki onartu beharko dituen.

Honek ez balu ezer adieraziko emandako epearen barruan, artxibatu egingo dira jarduketak, eratutako behin-behineko bermea galduz. Eskatzaileari jakinarazi egin beharko zaio dagokion ebazpena.

7. Baldintzak ezarritako epean onartuz gero, eskatu ahala ebatziko da baimena emateaz, eskabidearen egokitasunaren arabera.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E3000307A400U7B9O0B0M6A6

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI
NAGUSIA - 24/10/2019
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 24/10/2019
19:59:58

EXPEDIENTE ::
2019IDA_DOK0329
Data: 24/10/2019
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



aurretik komentatutako Euskal Lurzoru eta Hirigintzaren Legearen 210.artikuluaren aldaketa, non emakidaren iraungitzeak jabari publikoko tituluak eusten dion hirigintza-lizentzia iraungitzea ekarriko duela adierazten den, Euskal Autonomia Erkidegoko Portuen eta Itsas Garraioaren ekainaren 28ko 2/2018 Legearen bitartez barneratu zen. Hots, Bermeoko portuan dagoen ontziolari emakida eman ahal izateko baldintzak ezartzeko ebazpenaren oinarri den **Lege beraren** bitartez. Hori horrela, ulertzen da emakida emateko prozedura berria hasi bada, eta ez bada luzatu aurreko emakida, 210.8 artikulua guztiz aplikagarria dela kasu honetarako, arau hori orain tramitatzen ari den prozedurak oinarri duen legeak ezarri zuelako. Eta horren ebidentziak izan daitezke Portu eta Itsas Gaietako zuzendaritzara 2019ko urriaren 3ko ebazpenaren baldintzetan ezarri diren hurrengoak:

Condiciones particulares

3. La concesión que se otorga no presupone el cumplimiento de los requisitos exigibles por otras administraciones, más allá de los requeridos para el examen de su compatibilidad con la actividad portuaria.

12. La posesión de la concesión administrativa no excluye del cumplimiento de la legislación y ordenanzas municipales vigentes, por lo

8. Aurreko puntuan aurreikusitako baldintzen onarpenaren ondoren Administrazioak erabakiko balu eskainitako baldintzaren bat aldatzea, berriro onartu beharko dira baldintzak aurreko puntuan aurreikusitako moduan.

9. Baimen-ebazpena interesatuari jakinarazi beharko zaio, eta gehienez ere hogeita hamar eguneko epean, emakida emateko ebazpena jakinarazi eta biharamunetik kontaktzen hasita, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkari Ofizialera iragarki bat bidali beharko da argitaratzeko, non emakida hori ematearen berri emango den eta, gutxienez, emakidaren xedeari, epeari, egin beharreko inbertsioari, tasei, emandako azalerari buruzko informazioa jasoko den.

10. Emakidadunak onartutako klausulak inpugnatuz gero, Administrazioak iraungitzat jo ahal izango du titulua, klausulak legez kanpoko deklaritzen direnean izan ezik.



que la concesionaria deberá poseer todas las autorizaciones pertinentes necesarias para desarrollar su actividad

Condiciones generales

2. El otorgamiento de esta concesión no exime a su titular de la obtención y mantenimiento en vigor de las licencias, permisos y autorizaciones que sean legalmente exigibles, ni del pago de los impuestos que le sean de aplicación, incluyendo el Impuesto sobre Bienes Inmuebles, que le correspondan.

Are gehiago, momentu honetan Udalak ez daki emakida berria zein **proiekturi** lotuta eman ahalko den, eta emakidaren baldintzak zein proiektua bera bat badator 2017ko apirilaren 12an Tokiko Gobernu Batzarrak Astilleros de Bermeo S:L.-ri emandako jarduera lizentziaren oinarri izan ziren txosten eta proiektuarekin.

3. Ondorioak

Aurretik azaldutako guztia kontuan hartuz,

Ematen du 2017ko apirilaren 12an Tokiko Gobernu Batzarrak Astilleros de Bermeo S:L.k emandako jarduera lizentzia iraungita dagoela, bi arrazoietan oinarrituta:

- Lurzoru eta legegintzako euskal legearen 210.8 artikulua dio: "Hirigintza-lizentzia bidez baimendutako egintzaren ondorioz portuko jabari publikoa okupatzen edo erabiltzen denean, emakidaren iraungitzeak jabari publikoko tituluak eusten dion hirigintza-lizentzia iraungitzea ekarriko du."
- Momentu honetan Bermeoko portuan dagoen ontziolak ez dauka portuko jabari publikoa okupatzen edo erabiltzeko emakidarik.

Hori da nire ustea, zuzenbidean oinarritutako bestelako irizpideen kalterik gabe.
Dena den, alkatean egoki deritzona erabakiko du.



Oh. Orri oinean sinatzailea eta data



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E3000307A400U7B900B0M6A6

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI
NAGUSIA - 24/10/2019
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 24/10/2019
19:59:58

EXPEDIENTE ::
2019IDA_DOK0329

Fecha: 24/10/2019

Lekua: Bermeon

Erregistro unidadea:
Erregistro nagusia

